

BALEIKE



198. ZENBAKIA. EURO BAT
2011ko APIRILA

www.baleike.com

GERRAKO BOST DESAGERTU AURKITU DITUZTE



ERREPORTAJEA: TXIRRINDULARI ELKARTEAK 25 URTE



Galdona

Industria

denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industriegunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina
• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

BALEIKE 198

AZALA L. ALBIZU



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpuru, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio eta

Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Baleikeri buruzko herri inkesta

Apirilaren 11tik aurrera, telefono bidezko ia 600 elkarrizketa egingo ditu Aztiker enpresak zumaierrek *Baleikeri* buruz duten iritzia ezagutzeko.

Hamazazpi urte joan dira 1994an *Baleike* aldizkaria sortu zenetik. Bide luze horretan ezinbesteko bilakaera izan du aldizkariak, hamaika aldaketa eta itxuraldaketa, baina tinko eutsi dio hasierako helburuari: Zumaieri eta zumaierrei buruzko informazioa euskaraz eskaintzea. 2004an beste tresna bat gehitu zitzaion *Baleikeri*en komunikazio proiektuari, baleike.com webgunea; eta Urola Kostako Hitza sortzen ere lagundu genuen. Duela hamazazpi urte ez bezala, herritik eta herriarentzat sortutako euskarazko komunikazio baliabide sendoak ditugu orain.

Aldizkariko 200. zenbakia argitaratuko dugu ekainean, eta iruditu zaigu hausnarketa egiteko une aproposa dela, arnasberritu eta aurrera are eta indar handiagoz jarraitzeko. Eta *Baleikeri*en hauspoa zumaierrek zarete-

nez, zuei hitza ematea erabaki dugu. Aldizkariak eta webguneak duzuen iritzia jakin nahi dugu, zer duzuen gustuko eta zer ez, zeren falta sumatzen duzuen...

Ez da nolana hiko inkesta izango. Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideoi eskaintzen dizkigun hobekuntza-azterketak egiteko diru-laguntzak (HEHOBA) baliatu ditugu proiektua aurrera eramateko. Aztiker enpresarekin elkarlanean landu eta prestatu dugu galdetegia, eta apirilaren 11tik aurrera Aztikerreko teknikariak arduratuko dira inkesta egiteaz. 580 elkarrizketa egingo dituzte, telefono bidez. Telefono zenbakiak zozketaz aukeratuko dira, eta elkarrizketak erabat anonimoak izango dira.

Baleike egiten dugun lantaldeko kideok gure hausnarketa propioak egin ditzakegu, baina ezinbestekoa zaigu zuen iritzia jakitea. Horregatik, inkestan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, guztion artean *Baleike* hobeaz lortuko dugulako.

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETTZA) diruz lagundutakoa



Zumaiako Udala

Adio, Aitor

Joxe Arregi



Min dut bihotzean. Min dut aurreko igande hartan, Arroa Beheko gure elizatzxoan, besarkada bat zuri eman ez izana. Bi igandetik behin etortzen zinen Azpeititik, Jesusen oroitzapena gurekin ospatzera. Gurekin familia txiki bat osatuz, ebanjelioa entzutera, otoitz egitera, elkarrekin abestera. Ez genituen zuregandik hitz potolo edo distiratsuak espero, konpainia baizik. Eta konpainia egitera etortzen zintzaizkigun, baina beharbada zu zeu bakarrik sentitzen zinen.

Min dut bihotzean. Min dut eskua zuri bizkarrean jarri ez izana. Zure tristura arintzeko nola edo hala gai ez izana. Tristura ikaragarria sumatu bainuen zure begietan meza ondorenean eliz atarira atera zinenean. Hitz bakarra entzun nizun: "hotza", poltsikoetatik eskularruak eta txanoa ateratzen zenituen bitartean. Ez dakit goiz hartako hotzaz ari ote zinen, edota zure bihotzeko gau izoztuaz. Zenbat tristura zure begietan eta zure eskuetan, zenbat sufrimendu! Gure penak arintzera etorria zinen, baina gu ez ginen gai izan zureak arintzeko. Biharamunean, astelehena, jakin nuen zure erabaki tragiakoaren berri. Eta negar egin nuen zuregatik, neuregatik, guztiongatik. Baina atsedean hartu duzu, Aitor, betiko atsedean, eta horrexek arintzen gaitu, horrek bakarrik. Agian gauzak bestela izango ziren, baldin eta zure azken meza hartan, betiko antzera jarraitu ordez, paper guztiak utzi, meza liburua utzi eta bihotz-bihotzetik esan baze-nigu: "Oso gaizki nago. Ezin dut gehiago!". Agian negar egingo zenuen, eta zer axola dio? Negarrak ez du lotsarik. Agian elkar kontsolatuko genuen. Agian denok ekingo

Min dut bihotzean. Min dut eskua zuri bizkarrean jarri ez izana. Zure tristura arintzeko nola edo hala gai ez izana

genion negarrari. Eta huraxe izango zen, zinez, zure sermoirik onena. Gurutziltzatuaren lagunek bezala, Jesusen zauriak sumatuko genituen zure zaurietan, Jainkoaren haragi zauritua.

Agian ez genukeen meza amaituko. Eta zer? Gure eukaristiarik onena izango zen ziur. Zer da, bada, eukaristia, Jesusen gorputz zauritua gure gorputz zauritu guztietan konpartitzea ez bada?

Aitor, ondo ulertzen dut paperak alde batera utzi, aldaretik jaitsi eta Arroako elizatzxoan gure artean negarrez hasi ez izana. Seguruenik txiki-txikitatik ikasi zenuen apaiz batek ezin duela horrelakorik egin, Kristo perfektuaren eredu perfektu izan behar duela, indartsu eta seguru. Agian horregatik joan zinen Seminariora. Gaztea zinen, 36 urte besterik ez zenituen, baina zama astuna zeneraman gainean: mende askotako zama klerikal astuna. Agian apaizgoak ez zizun uzten gizaki hauskor izaten. Agian ez zizun uzten guregana etorri eta besterik gabe esaten: "Ezin dut gehiago. Hil egin nahi dut, ezin baitut bizi". Ez ote da zilegi horrela mintzatzea? Ez ote da humanoa, dibinoa? Baina agian mende luzeetako ideologia klerikalak ez zizun libre izaten uzten, haragizkoa, beste guztiok bezalaxe.

Hierarkia katolikoan zaudeten anai horiek, Aitorren eta Jesusen izenean eskatzen dizuegu: aska ezazue Eliza mila eta zortziehun urtez izan duen zama klerikal astun horretatik! Mila eta zortziehun urte diot, eta ez bi mila. Jesus bera ez baitzen apaiz izan. Eta ez zuen apaizgo klerikalik nahi izan bere mugimenduan. Jesus giza haragizkoa zen, eta baimena ematen zion bere buruari humano izateko, arauak hausteko, bekatarari omen zirenekin mahaian esertzeko. Larrimina sentitzeko eta bere lagunei esateko: "Nire arima triste dago, hiltzeraino triste. Hil egin nahi nuke". Hori ere humanoa da. Eta beraz, dibinoa, jainkozkoa. Etsipena aitortzeko baimena eman zion bere buruari. Eta hor ere agertzen da Jainkoa, hortxe batez ere, etsipenean lagun eta kide bihurtuz. Hierarkia katolikoko anaiok, maiz hitz egiten duzue heriotzaren kulturaren aurka, bai-

na onar ezazue jaso dugun sistema klerikala ere badela hilgarria: hainbat erru sentipen eta beldur itogarri, hainbat botere eta lege hilgarri. Eta ez esan inor ez dela bere bizitzaren jabe, geure gain utzi baitigu Jainkoak bizitzaren eta heriotzaren ardura. Ez esan Jainkoaren borondatearen aurkakoa denik norbaitek beretzat heriotza aukeratzea, bizitzea ezinezko zaionean. Jainkoak ez du guretzat torturarik nahi. Eta larriminetik askatzeko bide egokia izan daiteke heriotza.

Garizumaren hasieran entzun dugu bihozberritzeko eta Ebanjelioan sinesteko deia. Bai, sinets ezazue zuek ere gehiago ebanjelioan, eta gutxiago lege eta dotrinetan. Aska gaitezen hainbesteko zama astunetatik. Adiskidetu gizatasunarekin, jakintza gabeziarekin, botere gabeziarekin, ondasun gabeziarekin... askatasunarekin. Haragiarekin, haragiztatzearekin. Jesusen izenean eta Aitorren oroimenez eskatzen dizuegu.

Agur Aitor. Zu jadanik libre zara, aske. Jainkoaren besoe-tan zaude osorik, biziaren eta atsedenaren betean. Gu oraindik bidean gaude. Zure zama guztiak amildegian behera zihoazelarik, Jainkoa bera ere zurekin zihoan, zu paradisura altxatuz. Atzean utzi dituzu larrimin eta kezka guztiak. Guk soinean daramatzagu oraindik.

Lagun gaitzazu bidean, guk lagundu zintugun baino hobeto. Lagun itzazu anai-arrebak; kontsola ezazu aita, duela hiru hilabete amaren alargun geratu ondoren orain zutaz umezurtz gelditu dena. Gorde dezatela zure oroimena xamurtasunez eta ohore handiz. Arroan ere gogoan izango zaitugu, xamurtasunez eta ohorez, eta igandero ospatuko dugu zure presentzia, Jesusena bezalaxe. Eta guk zu gogoan izanez, zuk gu gordeko gaituzu. Gorde gaitzazu dena maite duen, dena sortzen eta birsortzen duen Memoria handian. Gorde gaitzazu Bizitzaren Misterio handian, Errukiaren misterioan, zuk jadanik ezagutzen duzun eta guk oraindik itxaropen dugun Misterioan.

Agur, Aitor. Adio.

9
baleike +
BEHIN BETIRAKO
ATSEDENA

4
iritzia
ADIO, AITOR

6
iritzia
PORTUKO TREN-GELTOKIA

7
bertso xorta
ZUMAIAN EUSKALAKARI

16
izpiak eta hizkiak
IMANOL MANTEROLA

19
erreportajea
ZULATURIK GABEKO
GURPILA

29
agenda
SANTELMOAK

30
ipuina
PIRATA

Portuko tren-geltokia, Zumaiaren ondarea

Pedro Etxabe; Javier Carballo; Xabier Álvarez; Rafael del Pilar; Ismael Manterola; Oihana Artetxe; Amaia Miner. ZIIZ proiektuko lantaldeko kideak.

Urolako Trenaren portuko geltokia, herritarrek 'Beheko Estazioa' deitzen diotena, 1926. urtekoa da, orduan gauzatu baitzuen Gipuzkoako Foru Aldundiak Urolako Trenaren portuko adarraren proiektua.

1973 aldera gelditu egin zen portuko adarreko jarduera, eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez, 1986ko apirilaren 29an, Urolako Trenaren ondasun guztiak Eusko Trenbideak Sozietateak hartu zituen, eta ofizialki ezabatuta geratu zen adarra 175/86 dekretuaren bidez. 1988tik aurrera, geltokiko eraikina Osakidetzako Anbulatorio bihurtu zen, eta 2008ko abendutik, Basadi inguruan Anbulatorio edo Osasun Zentro berria inauguratu zenetik, geltokia itxita dago eta ez da ezertarako erabiltzen.

Geltoki hau gure herriko eraikin enblematikoenetako bat da eta uste dugu Zumaiarentzat eta zumaiarrentzat behar duela izan, ezaugarri historiko oso bereziak dauzkalako:

- Urolako Trenaren osagai bereizgarrienetako bat delako, trenbide ondoko beste geltoki batzuekin batera; XX. mendearan hasierako euskal arkitektura berriko eta eklektikoaren araberakoa da eraikin hau, estilo horretan ordezkari gorenetakoa bat izan zen Ramon Cortazar arkitektoaren proiektuaren arabera egina. Ondasun "inbentariagarritzat" jotzen dute, babesgarritzat.
- Zeregin garrantzitsua izan zuelako merkataritza portuan, industriarako lanean, batik bat inguruko zementugintzarako.
- Zumaiako industriagune garrantzitsueneko baten lekuko ia bakarria delako. XX. mendeko ia 80 urte baino gehiagoan, Etxezarreta kalearen inguruan kokatu zen industriarena, hain zuzen ere.

Horregatik, leku paregabea da etorkizuneko Zumaiako industria interpretatzeko zentroa hor kokatzeko; horixe sortzea du helburutzat, hain zuzen ere, ZIIZ proiektuak



(Zumaiako Industria-ondarearen Informazio Zentroak). Iazko martxoan Zumaiako Udalak adierazi zuen akordioa lortu zuela Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin, eraikin hori 355.000 euroan erosteko, 10 urtean ordaintzeko interesik gabe. Baina, handik gutxira, Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzak adierazi zuen berak ere behar zuela eraikina.

2010eko maiatzaren 10ean, Ekonomia eta Haziendako sailburuak, Eusko Abertzaleak–Nacionalistas Vascos taldeko parlamentarioa den Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizolak egindako galdera zela eta, erantzun zuen aztertzen ari zirela eraikin hori erabiltzeko orduan nola egin bateragarri Zumaiako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren interesak, zirudienek aukera sortu zelako agian Euskal

Autonomia Erkidegoko Administrazioak erabiltzeko eraikina. Informazio horien berri izandakoan, ZIIZ proiektuko kideok Zumaiako Udaleko alderdi politikoekin harremanetan jarri ginen, eraikin hori zertarako erabiliko genukeen azaltzeko; gure asmoetan aurreikusita dago Turismo udal bulegoarekin partekatzea eraikina.

Geltoki hau gure herriko eraikin enblematikoenetako bat da eta uste dugu Zumaiarentzat eta zumaiarrentzat behar duela izan

Eraikina itxita dagoenetik bi urte baino gehiago iragan dira, Ekonomia eta Haziendako sailburuak Legebiltzarrean erantzun zuenetik hamar hilabete pasa dira eta beste horrenbeste bete dira Udaleko alderdi politikoekin izandako harremanetatik, eta oraindik ez daukagu inolako informaziorik gaiaren inguruan. Gure kezka adierazi nahi dugu eraikin honen etorkizuna dela eta.

Zumaian euskalakari

Doinua: "Mendian gora haritza"



1.

Zumaian saltakalari
onak daudenez ugari,
Korrika berriz badator eta
euskaltzale, adi!
Maitatu, ikasi, ari,
bihurtuz euskalakari,
gelditu gabe eman bidea
gure euskarari.

3.

Hamabostean gogora
txikien txanda izango da
ehunka ume herrian zehar
lasterka gustora.
Gero bestelako proba,
gure azkeneko moda:
neska-mutilak Kantauri plazan
dantzatzen flash-moba.

2.

Egitaraua zabala,
sozial eta kulturala;
zahar eta gazte denak biltzea
ez da lan makala.
Bertsoen xarma bezala,
Maiaren dokumentala;
bakoitzak bere gogoko plana
aukera dezala.

4.

Larunbateko jolasa
izan daiteke demasa:
Korrikaren zain kantuz dantzari
guztiok gaupasa!
Pausoz pauso geure kasa,
herriz herri plazaz plaza,
mugi gaitezen euskarak luze
har dezan arnasa. (bis)





Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es



L I B R U D E N D A

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

ALBERDI
Dj July

Musika onena eskontzetan, kinton ospakizunetan eta era guztietako festetan

600 982 810
july_alberdi144@hotmail.com




ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157
anasetxeozapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA

D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea
tel. 943 117 406



Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5
Denda: Txornin Agirre, 4
Tel.: 943 862 532

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK


- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
Artisano



Napuzki 2 - tel. 943 861 921
ZUMAIA

OGI-EDER

ARRUTI

Baltasar Etxabe 2/9
Zumala 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5
tel. 943 861 485



Finis, French, English, Español, Catalonian, Italian, Basque, Catalan, Finnois, Francés, Inglés, Español, Francés, Catalán, Inglés, Basc, Catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net

Basodi
albaitaritza

Albaitaria
Itzi Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
velenasa@basodicalivet.com
www.basodicalivet.com

Gótzeez: 11-13 / Arretuak: 16-19:30 / Astelotuen goizean eta larunbelean 8:30a
Lamiak/Elbarako: 606 728 707 Ebezez ebeko zerbitzua



BASUSTA
ERRETEGIA



Patallia Etxezarreta, 25
tel. 943 862 073

BATELA



ARRANDEGIA

Izustarri, 2-4
Tel. 943 860 750

Braky's
Okindegia Kafeategia

Izoga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



BEHIN BETIRAKO ATSEDENA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

1936ko Gerra Zibilaren ondoren desagertuta zeuden Zumaiaiko bost gudariren hezurak Gernikako hilerrian lurperatuta daude, herri hartako bonbardaketan hildakoen omenez eraikitako mausoleoan, Gudan hildako Gipuzkoako beste gudari batzuekin batera. Gernikako Erregistroan gordetzen den zerrenda batean aurkitu ditu Joseba Esnalek desagertutako zumaiaiar horien izenak. “Orain ziurtasun ia osoarekin esan dezakegu badakigula non dauden lurperatuta gure familiartekoak”.

*Josu Albizu zaldi gainean.
Bere eskuinean, Jose
Segurola eta Manuel Garate
zumaiairrak.*



LORE ALBIZUK UTZITAKOA

Joseba Esnalek fotokopia batzuk ditu eskuan. Gernikako Udaleko Erregistroan gordetzen den dokumentuaren kopiak dira. Gris koloreko paper horietan, eskuz idatzita, 1937. urtean Gernikan lurperatuak izan zirenen izenak jasotzen dira. Batzuek “gudari” hitza daramate izenaren aurretik. Hilerriko zein lekutan ehortzi ziren ere jartzen du jarraian. “Dokumentu originala eskuan nuela, zerrendako izenak irakurtzen hasi nintzen eta Zumaiaiko gudari baten izena aurkitu nuen: Tomas Uriya y Gaviria. Gero beste bat: Eduardo M. Carmelo Fernandez de Arroyabe. Eta gero hirugarren bat: Josu Albizu Aizpurua, nire amaren osaba”.

Desagertuta egon arren, edo agian horregatik, beraien memoria beti presente izan da Zumaiaiko etxe batzuetan. “Gure etxean beti jakin izan dugu gure amaren osaba bat, Josu, Gerran izan zela Amaiur batailoiarekin. Frontean hil zen, baina bere gorpua non zegoen ez genekien. Gaiak barrenak ukitzen zizkidan. Batean eta bestean ibili naiz informazio bila. Banekien Amaiur batailoiak Mundakan zuela kuartela, eta Gernikan ere bai. Jakin nuen Otxandion borroka egin zutela eta han hil zela osaba. Jakin nuen, baita ere, atzera egitean Urkiolako gainean ere borroka egin zutela eta osabaren gorpua beraiekin eraman zutela. Beste zumaiar batzuk ere han zirela eta Josuren gorpua lurperatu egin zutela. Baina non? Ez genuen inoiz jakin”, dio orain Josebak.



ARNANTZ RUBIO APREA

Tomas Uriya, Pedro Jose Etxabe, Josu Albizu eta Eduardo Fernandez de Arroyabe gudarien senitartekoak. Ezkerrean, Jon Gutierrez historialaria.

Batzuetan zortea alde egoten da eta ohiko berriketaldi bat aurkikuntza baterako lehen pausoa izan daiteke. “Udal-tzain lankide batekin hizketan ari nintzen Gerrako desagertuen inguruan. Lankide hori Gernikakoa da eta esan zidan etxean entzunak zituela gai horren inguruko zenbait kontu; Gernikako bonbardaketan hildakoez gain, Gerran hildako hainbat gudariaren gorpuek bertako hilerrian lurperatuta zeudela”.

Amaiur batailoiko gudariak. Behean, ezkerretik bigarrena Tomas Uriya Gabiria.



JOSE ANDRES URIAK UTZITAKOIA

Gerran hildako hainbat gudari eta milizianoen gorpuak Gernikako hilerrian lurperatu zituzten 1936 eta 1937. urte haietan. Guda amaitu eta hogeitazero, Zallo hilerriko “Zona Gipuzkoa” bezala ezagutzen zen lekuan zeuden hilobiak kentzeko agindu zuten garai hartako udal agintariek. Gernika Zaharra elkartearen argitalpen batean jasotzen denez, hilobi haietan gudari, miliziano eta bonbardaketan hil eta identifikatu gabeko Gipuzkoako errefuxiatuak zeuden lurperatuta. Haien gorpuzkinak hezurtegiara eraman beharrez, lauki formako hilobi komun batean lurperatu zituzten berriro ere. Gainean “Sistiaga t’ar Patxi eta laguneri. Guk oarmena. Yainkoa saria” izena zeraman marmol zurizko hilarri bat jarri zuten. Noizean behin, esku ezezagun batek loreak jartzen zituen hobi horretan. 1987an, hilobitik hezurak atera eta panteoi batean gordetzeko erabakia hartu zuen Gernikako Udalak. Eduardo Chillidak egindako harrizko plaka batek gogoratzen zituen gerran hildako pertsona horiek. Plakak “Aberriagatik hildakoen oroimenez 1937-1987 apirilak 26” izkribua zeraman. 1995an behin betiko kokaleku batera eraman zituzten, Gernikako bonbardaketan hildakoen omenez eraiki zen mausoleora.

Lankidearen bitartez, Gernikako hilerrian lan egin zuen pertsona batekin jarri zen harremanetan Esnal. “Pertsona hori 1987ko lanen lekuko izan zen eta aipatu zidan hezurrez gain gudarien uniformeak ere atera zituztela”. Gaur egungo sentsibilitaterik ez zegoen garai hartan, eta arropa horiek guztiak erre egin zituzten.


Gernikako udaletxera joan zen jarraian. “Josu hil zen urteko dokumentu batzuk aurkeztu zizkidaten eta han, karpeta ziztrin batean, hildakoen zerrenda bat zegoen. Gogoan nuen lau zirela desagertuak: zerrendan agertzen ziren hirurak eta beste bat, Joakin Laskibar, baina hori 1936an hil zen eta urte

*Josu Albizu.
Amaiur batailoian
egin zuen Gerra
eta Otxandion hil
zen, 1937an*



LORE ALBIZUK UTZITAKOA

Itxarkundia batailoia. Hainbat zumaier aurki daitezke argazki honetan.



JOSEBA ESNALEK UTZITAKOA

Jimi **JIMENEZ**

Arkeologoa

“Hobi asko daude oraindik aurkitu gabe eta bakoitzaren atzean drama gogor bat dago”



JUAN LUIS ROMANET

Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologia fisikoaren saila 2000. urtetik hona ari da 1936ko Gerra Zibilean desagertutako enbriak berreskuratzen. Euskal Herrian bakarrik ez, Espainia osoan eta nazioartean ere aritu dira lanean. “Bitxia da, baina esango nuke Euskal Herrian egin dugula lan gutxi”, dio elkarteko kide Jimi Jimenez arkeologoak. Gaia maite du; agerian da hori. “Behin hasten zarenean, ezin duzu utzi”.

Noiz hasi zineten 1936ko Gerrako desagertuen gorpuak bilatzen?

2000. urtean izan zen, Bierzoko eskualdean, Leonen. Modu zientifikoekin lehen aldiz han egin zen lan. Trantsizio garaian hainbat gorpu atera zituzten hobietatik, alderdi politikoen edo Udalek eskatuta. Baina garai hartan zeuzkaten erremintak ez ziren egokienak; lanak ez ziren inondik inora era zientifikoa egiten eta gorpuzkinak identifikatzea ezinezkoa zen, baliabide teknikorik ez zegoen eta. Bierzoko hartan, berriz, arkeologo, antropologo eta forentseek hartu zuten parte. 2000. urtean sortu zen gai hauetan arituko zen lantaldea Aranzadin eta 2003an hitzarmen bat sinatu genuen Eusko Jaurlaritzarekin.

Zein da zuen lan esparrua?

Espainia osoan aritzen gara esango nuke. Euskal Herriari dagokionez, esan bezala Autonomia Erkidegoan hitzarmena sinatuta dugu; Nafarroan, berriz, elkarrekin deituta egiten dugu lan. Espainiatik kanpo ere aritu hara lanean. Pako Etxeberria forentsea Latinoamerikan giza eskubideen urraketak izan diren zenbait herrialdeetan aritu da lanean; Txilen edo Argentinan, adibidez.

Zer lan egiten duzue?

Lan historikoa eta arkeologikoa bereiziko nituzke. Hobi komunitatik gorpuak ateratzeko lanak egiten dituzten taldeak ditugu. Baina baita artxibategiak (zibilak, militarrik, historikoak...) ikuskatzen aritzen diren historialariak ere. Desagerpenetan edota ateratzen ari garen gorpu horren dokumentazioa handitzeko baliagarriak izan daitezkeen agiriak biltzen aritzen dira. Horrez gain, testigantzen bilduma ere badugu. Idatzitako dokumentuek mugak izaten dituzte, eta istorio mordoa ez da jasota geratzen liburutetan, dokumentuetan edo esku orrietan. Familien edo bakarkako istorioak dira. Ha-

sieratik ari gara lan hori egiten eta gaur egun 200 edo 300 bat elkarrizketa eginda izango ditugu. Horietan denetik jasotzen da: hobi komun bat non dagoen, desagertze baten inguruko denuntzia edota familia baten ohiko bizitzaren kontakizuna.

2000. urte hartatik hona, zenbat hobi aurkitu dituzue?

Asko. Pentsa, dagoeneko ez ditugu kontatu ere egiten. Hain zuzen ere, Aranzadik proposamen bat aurkeztu zion Presidentziako Ministerioari Espainian egiten ari diren lan guztien kontaketa egiteko. Estatu mailako ikuspegi bat emango luke honek.

Non aurkitu dituzue hobi gehien?

Errepresioaren edota hobi eta hilobiratze klandestinoen mapa egiten bada, nabaritzen da gerrako frontierik egon ez zen lekuetan izan zela errepresio handiena: Gaztela eta Leon, Extremadura, Andaluzia... Hasieratik altxamendura batu ziren probintzietan. Palentzia, Burgos edota Valladoliden ez zen tiro bat bera ere bota Gerran, baina erretagoardian errepresio handia izan zen. Euskal Herriari dagokionez, errepresio handiena Gipuzkoan izan zen. Kontuan hartu behar da Gipuzkoa 1936ko uda edo udazkenean erori zela. Francoren gudarosteek irabazi zuten lekuetan errepresioa modu askotan egin zen. Ezkerreko alderdi politiko edo mugimendu sindikaletan aritutako artean garbiketa handiak egin ziren. Batzuek arazo pertsonalak (lurrak, herentziak...) konpontze-ko aukera ere ikusi zuten.

Nola jakiten da leku konkretu batean hobi bat egon daitekeela?

Gehienbat familiarrekoen edo bizilagunen testigantzei esker. Badakite leku jakin batean, bidegurutze batean edo erreten batean gorpu bat dagoela lurperatuta. Arazoa da lehen esku-ko testigantza gehienak desagertu direla eta geratzen direnak bigarren edo hirugarren belaunaldikoak direla. Horregatik, akatsak ere izaten dira; beti ez da asmatzen. Gaur egun Desakargako mendatean ari gara lanean eta ikusten ari gara familiarrekoek Gerra garaian bertan edo amaitu eta berehala atera zituztela han ehortzita gorpuak. Halako informazioa da galtzen dena.

Zer nolako ehortzetak aurkitzen dituzue hobi haue- tan?

Denetik dago: bakarkakoak, gertaera puntual bati dagokion ehortzeta kolektiboa edota leku berean aurki daitezkeen ba-

karkako hobi desberdinak. Une honetan, Iruñea ondoan ari gara lanean, Ezkaban, bertako presondegiko hilerrian. Gorpu asko daude han lurperatuta modu klandestinoan, baina ehorzketa indibidualak dira.

Zer egiten duzue ateratzen dituzuen gorpuekin?

Lehen berriro ere lurperatu egiten zituzten, bazekiten eta haien nortasuna. Badira zenbait udal ezin dutenak jasan beraien lurretan ehorzketa klandestinoak egotea. Gorpuek berreskuratzeko lanak sustatzen dituzte, nahiz eta ondo dakiten gorpu horien informazio genetikoak bizirik daudenekin parekatzea ezinezkoa izango dela. Ondoren, berez dagokien lekuan, hilerrian, lurperatzen dituzte. Gure lanaren azken helburua da, ahal izanez gero, arrasto horiek identifikatzea. Gorpuzkin guztiak laborategira eramaten ditugu eta sexua, altuera eta adina aztertzen ditugu. Datu horiek izanda, bizirik dagoen batekin alderatzeko aukera dagoela ikusten badugu, lanekin aurrera jarraitzen dugu. Bestela, berriro ere lurperatu egiten ditugu. Hala ere, laborategian gorpu bakoitzaren lagin bat atera eta gordetzen dugu. Familiarteko batekin alderatzeko aukera badago? Ederki! Baina gaur egun ez da hori hain sarri gertatzen.

Zer ikuspegi dute instituzioek gai honen inguruan?

Eusko Jaurlaritzarekin dugun hitzarmena urteik urtera berri-zen joan da, nahiz eta agintean alderdi politikoak aldatu. Baina juridikoki orain hamar urte bezala jarraitzen dugu. Memoria Historikoaren legea ere onartu zen, baina juridikoki ezer gutxirako balio izan du. Zerbait mugitzen saiatu den bakararra Garzon epailea izan zen, eta bera izan da erortzen lehena eta bakarra. Badira oraindik ukitu ezin diren gaiak; badirudi hau dena ez dela politikoki zuzena. Familiek ez dute juridikoki inongo babesik. Familia hauei laguntza eman nahi diegu historia mingarri hauek ixteko edo bukatzeko.

Hamarkada bat daramazue lanean. Noiz arte uste duzu jarraituko duzuela?

Une batean gauzak lagatzen joango gara. Lekuko zuzenak desagertzen ari dira eta horren ondoren dokumentazioaren bidez egin beharko dugu lan. Nik uste hemendik hamar bat urtera hobietan lan egiteari utziko diogula. Dagoen guztiaren %10 edo 20 aurkitzen badugu, gaitzerdi. Hobi asko daude oraindik aurkitu gabe eta bakoitzaren atzean drama gogor bat dago.

► OMENALDIA

Fusilatutako pertsona baten gorpuzkinak aurkitu zituzten hobi batean lurperatuta Madariagan, Azkoitian. Lurpetik ateratzerakoan omenaldia egin zioten.



CLAUDIO ALBISU/ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

hartako dokumentuak falta dira erregistroan. Agiri horrek enterradoreak esandakoa berretsi zidan”.

Behin Zumaian, bosgarren izen bat gehitu behar izan zion zerrendari. “Jexux Etxabe etorri zitzaidan esanaz beraien familiarteko baten gorpua ere Gernikara eraman zutela 1936. urtean, baina ez zekitela zehazki non zegoen. Pentsatzen dugu Pedro Jose Etxabe ere han izango dela lurperatuta. Horrekin bost gudarik osatzen dute zerrenda eta ia ziurtasun guztiarekin esan dezakegu 70 urte baino gehiagoan desagertuta zeuden bost gudariak mausoleo horretan daudela lurperatuta”.

Urte luzetako samina

Gerrako frontean hildako anaiak, osabak, aitonak utzitako hutsunea familiek ezin izan dute erraz bete urte luze hauetan. “Gure etxeetan beti izan da jakin mina. Osaba Josu non zegoen lurperatuta jakin nahi genuen”, dio Lore Albizuk, Josu Albizuren ilobak. Desagertuen memoria beti bizirik, baina bera falta. Bere hilobiaren aurrean belaunikatu ere ezin bere arimaren alde errezo bat egiteko. Nola bizi hori? “Eguna joan eta eguna etorri, eta falta eta falta. Baina azkeneko jarri egiten zara, nahiz eta bera ez dagoen”, du gogoan Jexux Etxabek. Begiak busti egiten zaizkio oraindik ere gai honi buruz hitz egiterakoan. Jose Andres Uria, Tomas Uriaren iloba ere iritzi berekoa da: “Oso gogorra izan da ez jakitea non zegoen osaba lurperatuta. Bere gurasoak non zegoen jakin gabe hil ziren”.

Francoren gudarosteak Zumaian sartu eta gero hainbat familia kanporatu zituzten. Tartean ziren Lore eta Jexuxenak. Jaioterria utzi eta Bizkaira egin behar izan zuten senitartekoekin. Mundaka, Lekeitio, Forua. Bizkaiko herrietan ondo hartuak izan zirela goraipatzen du Lorek. Lekeitio eta Forua arteko bidea autobusez egiten ari zela jakin zuen Jexuxek bere anaia Pedro Jose hila zela. “Autobusean gindoa-zela entzun nuen Aramaioko frontean lau hildako izan zirela eta horietako bat Zumaiakoa zela, Pedro Jose izenekoa..., nire anaia. Ordura arte pentsatzen genuen bizirik zegoela.



ARNAITZ RUBIO APREA

1936ko irailaren 20an joan zen Zumaiaetik bapore zahar batean, Ondarroa edo Lekeitio aldera. Jan beharra zegoen eta batzuk frontera joan ziren eta gazteenak morroi geratu ziren. Anaia Aramaion hil zen 1936ko abenduaren 2an. 16 urte besterik ez zituen”.

Lorek osaba Josu ikusteko aukera izaten zuen, Mundakan. “Frontera kamionetetan joaten ziren eta haietara igotzen zirenean Eusko Gudariak abesten zitzairen. Han ikusten nuen osaba, baina egun batean joan zen eta ez zen gehiago itzuli”. Josu Albizu Otxandioiko frontean hil zen eta han hilobiratu zuten. “Bagenekien hobi komun batean sartu zutela, baina Iñaki Zulaikak [Amaieur batailoiko gudaria hau ere] alkandoragatik ezagutu zuen eta atera egin zuen”. Erretiratzean, hildako gudarien gorpuak beraiekin eramane ohi zituzten. “Bagenekien Gernika inguruan egongo zela lurperatuta, baina zehazki non, ez”.

Nazien hegazkinek 1937ko apirilaren 26an Gernika bonbardatu zutenean, Lore eta Jexux Foruan zeuden. Jexuxek gogoan du oraindik Gernikaren bonbardaketa ikusi zuela. Ez zekiten, baina, ordurako beraien senitartekoak Gernikan lurperatuta zeudela, beraiek bizi ziren lekutik bi kilometro eskasera.



GERNIKA ZAHARRA ELKARTEA

Tomas Uria, berriz, Mieresen hil zen, Asturiasen. “Amaieur batailoiko gudaria zen eta Asturiasera joan zen, frontera. Euskal Herritik joandako gudariak Saseta batailoia osatu zuten eta han hil zen, 1937ko otsailaren 21ean”. Jose Andresek eta lehengusu batzuek haren gorpuzkinak bilatzeko saiakera egin zuten beren kabuz orain urte batzuk. “Urte asko pasa ziren eta ez genekien non egon zitezkeen osabaren gorpuzkinak. Jon Gutierrezekin hitz egin nuen eta hark Aranzadiko jendearrekin jarri ninduen harremanetan. Haiei esker jakin

Renoko paperak heltzeaz

Jose Maria de Huarte y Jauregui markes, filosofo eta abokatu nafarra Zarauzko komandante militarra izendatu zuten 1937an. Dirudienez, jaun horrek herri bakoitzeko artxibategietatik hainbat dokumentu eta espediente eramane zituen, Zumaiaetik ere bai. Handik urte askotara, denboraldi batean paper horiek Bilboko antikuario batean egon ziren salgai, eta orain urte gutxi jakin da Renoko Unibertsitatean (Ameriketako Estatu Batuetan) gordeta daudela, “Huarte Jauregui bil-

duma” izenarekin. Joseba Esnal paper horien atzetik dabil azkenaldian. “Zumaiakeoz gain, Getaria edo Zarauzko dokumentuak ere badaude. Zumaiairi dagokionez, 1936 eta 1937ko espediente pila bat falta da Udal Artxibategian. Jakin genuenean paper horiek Renoko Unibertsitatean daudela, Foru Aldundiko Ondare Zuzendaritzarekin harremanetan jarri ginen Estatu Batuetara eskaera egin zezan. Orain gutxi esan digute dokumentu horien kopiak heltzeaz daudela”.



Jose Maria de Huarte y Jauregi



nuen frontetik Euskal Herrira ekarri zutela haren gorpua eta Gernikan lurperatu zutela”.

Eduardo Fernandez de Arroiaberen familiaren kasua bestelakoa da. Joseba Esnalek egindako aurkikuntza azaldu zienean, senideek ez zuten ulertzen; familiartekoek pentsatzen zuten aita Victorianoren anaia bizkia, Eduardo, Zumaiaiko hilerrian zegoela lurperatuta. Baina oker zeuden. “Niretzat gauza berria da”, zioen harrituta Nelsonek. Josebari eta beste kideei laguntza eskatu die. Nora joan informazio esker? Zer egin? “Familiarteko baten beste historia bat jakin dugu orain eta, noski, jakin mina piztu zaigu”.

Zumaiar hauen hezurak herrira ekartzearen ideia ere denen burutik pasa da, familiarako beste kideekin atsedean har dezaten, baina Gernikan gordetzearen alde azaldu dira. “Gudariantzat beraiantzat herri simbolikoa zen Gernika. Niretzat egokiena litzateke bertan uztea”, dio Jose Andresek. Besteek ere berretsi egiten dute.

70 urte baino gehiago igaro dira gazte haiek gerra anker hartan hil zirela. Hamarkada ilun eta luzeetan, gainera, isilik egon behar izan dute. “Etxeetan hitz egiten genuen haiei buruz, baina kalean ezin genuen. Garaiak bestelakoak ziren”, gogoratzen du Lorek. Garaiak orain desberdinak badira ere, frankismoaren itzala luzea da oraindik eta haren oinordekoek ez dute gogo onez ikusten egia jakiteko azken urteetan egin diren lanak. “Ez zaie komeni. Gertatzen da garai hartan gerran parte hartu zuten batzuk oraindik bizirik daudela eta haien atzetik familiarak daudela. Eta horiek ez dute nahi hau dena ateratzerik”, dio Jose Andresek. “Urteetan ahoa itxita izan dugu frankismoa zela eta, baina orain zabaldu dugu.

“Gerra bizi izan dutenak desagertzen doaz eta haien oinordekoak ari dira hau dena ateratzen”

Beste desagertuak

Joseba Esnalek Gernikako Erregistroan aurkitu dituen bost zumaiar horiez gain, badira desagertuta segitzen duten beste zumaiar batzuk. Jon Gutierrezek egindako ikerketa batek beste hiru, behintzat, aurkitu ditu.

Tomas Zubizarreta: “Hilario Zubizarretaren anaia. Hilario abertzalea zen eta Tomas komunista. Eta komunista ona bezala Errusiara joan zen borroka egitera. Harrapatu egin zuten eta kontzentrazio esparru batera eraman zuten. Han hil zen eta gaur egun ez dakigu non dauden bere gorpuzkinak. Dakigunez, Bigarren Mundu Gerran borroka egin eta desagertuta dagoen zumaiar bakarra da”.

Juan Jose Elorriaga Gomez: “Elorriaga okinen familiakoa. Melillan egon zen apaiz eta poeta ere bazen: bere bertso batzuk *Argia* aldizkarian argitaratu ziren. Apaiza izan nahi zuen, baina Marokoko Gerrak bokazioa errotik moztu zion. 1922ko uztailearen 8an hil zen Melillan, eta desagertuta dago, mairuek ez zuten eta uzten gorpua berreskuratzen”.

Jose Maria Arruti Idiakez: “Jaiotzaz zestoarra, Zumaian bizi izan zen urte askotan. Oiartzungo Pikoketa mendian hil zen fusilatuta 1936ko abuztuaren 11n. Irungo Nicolas Guerenidiain errepublikar elkarteak urtero omenaldia egiten dio”.



La Tejerako hobia. Hiru pertsonen hezurak aurkitu zituzten.

FRANCISCO ETXEBERRIA ETA LOURDES HERRASTI. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Jakin nahi dugu, gainera”, gaineratu du Jexuxek.

“Esan izan da egia bigarren belaunaldiek aterako zutela, eta hala ari da gertatzen. Gerra garaia bizi izan dutenak desagertzen ari dira eta haien oinordekoak dira orain hau dena ateratzen ari direnak”, dio Joseba Esnalek. “Baina berandu ere bada”, erantzuten dio arreba Lorek [Lore Esnal, Lore Albizuren alaba]. “Ondo daude egiten ari diren lan guztiak, baina asko egia jakin gabe hil dira, beraien senitartekoak non zeuden jakin gabe”.

Gai honi buruzko hitzaldi bat prestatzeko asmoa erakutsi du Esnalek, Erkibe taldearen bitartez. Gernika Zahar elkarteak eta Aranzadiko kideek hartuko lukete parte bertan. Oraindik erabaki gabe dago data, baina udaberrian Alondengan egingo dela espero du. ■



argazkia eta testua Imanol Manterola



Agitako panoramikoa

Askok ezagutuko duzue Zestoan aurkitzen den urjauzi polit hau, baso sakonean ezkutatuta euri asko egiten duenean ikusgarria bihurtzen da.

Ehun argazki bota nizkion gutxienez. Irudian duzuen hau bost argazki zutikakoen batura da, gero Autopano programa erabili nuen guztiak batzeko eta azkenik Photoshopen eman nizkion azken ukituak: saturazioa, enfokea etab... Ea gustuko duzuen.

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigrunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsi@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



Erribera, 8

tel. 943 861 694



ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045



ERROTA
OPIL-OKINDEGIA
SANTIXO AVUZA, 32
20750 ZUMAJA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
erota@erota-okindegia.com

NORTASUN-AGIRIENTZAKO
ARGAZKIAK

10
Minutuan



ERTZ informatika
Behoko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAJA

Parafarmazia • Belar-denda
Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Urne eta haurrentzat, dietetikoki, kosmetikokiak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dieta, Naturopatia, Idoklogia, Flores de Bach, Masajak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesatzeak, Etsaren Arbuetearen, Buruko minen, Zirkulazio arazoak... kontrakoak), Akupuntura: horietekin eta horietatik gabe

BASADI KALEA, 3 - BEHA - ZUMAJA

Galdona



burdindegia

Mendaro marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



kafetegia

Txomin Agirre kaia

Tel. 943862181



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabiloia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



GOIKO TABERNA

Erribera, 9

tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

Gure Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaja
Tel.: 943 86 09 70

English School
Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis

tel. 943 143 334

ZULATURIK GABEKO GURPILA

TESTUA: AITOR MANTEROLA

Hogeita bost urte betetzen ditu aurten Zumaiaiko Txirrindulari Elkarteak, eta bertako kide dira hasieratik Juanito Gomez eta Balentin Agirre. Ibilbide osoari itzulia eman diote, helmugarik ez duen irteera hartatik abiatuta.



ERREPORTAJEA

GORKA ZABALETA

Aurreko mendeko laurogeiko hamarkadan hasi zen lasterketa Zumaiako Txirrindulari Elkartearentzat. 1986an hain zuzen. Hogeita bost urte betetzen ditu aurten. Baina irteera hura irteera neutralizatua izan zen, lehenagotik baitzetorren martxan herriko txirrindulari taldea. Izan ere, beste bi izen izan zituen aurretik: Pulpo Kirol Elkartea aurreneko pedal kolpeetan, urtebetez, hain zuzen, eta Zumaiako Herri Batzokia 1977tik 1986ra arte.

Makina bat lagun bildu ditu urte hauetan guztietan txirrindularitza taldeak. Haietako bi dira Balentin Agirre eta Juanito Gomez. Ondo baino hobeto ezagutzen dute ibilbide osoa, hasieratik baitaude bertan, eta oraindik ere hor segitzen dute, zuzendaritzako kide izaten.

Aurreneko begirada irteera puntura bota behar da. Agirrek ekin dio etapari: “Pulporen izenean urtebete egin eta gero, Zumaiako Herri Batzokian sartu ginen. Herriko kirol talde guztiak biltzen zituen, baina ez zuen bide luzerik egin”. Gomezek eman dio erreleboa: “Oso zaila zen ondo joatea. Gerora, futbolekoek bakarrik iraun zuten izenarekin”. Agirre jarri da berriz elkarriketaren buruan, hitzen tropelaren abiadura biziari eutsiz: “Hala ere, bederatzi-hamar urte egin genituen ZHB izenarekin”.

Orduan sortu zen egungo Zumaiako Txirrindulari Elkartea. Izena zuen berria, beste gainontzean lehengo jende bera zegoelako: “Berriren bat sartu zen”, gogoratu du Gomezek, eta presidente guztiakin ere akordatu da: “Jose Ignazio

Otaño izan zen aurrenekoa, eta hil arte iraun zuen karguan. Xabier Agirrek ordezkatu zuen, eta hura hil zenean, Alberto Vicentek hartu zuen lekukoa”. Batek buru eginagatik ere, taldea zen eta izan da elkartearen oinarria. Denek denetik egiten zuten eta egiten dute: “Zuzendariak ginen, gurasoarena ere egin behar izaten genuen...”, hasi da Gomez, “autoa ere Balentinek jartzen zuen lasterketetan ibiltzeko”, bukatu du. “Parrilla ipintzen nion goian, eta aurrera”, osatu du lana Agirrek. Autoak beste erabilera batzuk ere izaten omen zituen: “Lasterketetara txirrindulariak eramaten genituen, eta entrenatzen ere erabiltzen genuen, gurasoei beldurra ematen dielako errepidera atera beharrak”.

Orduan ere lau maila zeuden, orain bezala: alebinak, infantilak, kadeteak eta jubenilak. Baina bazuen berezitasunik, Agirrek azaldu duenez: “Alebinetan eta infantiletan eremuak zeuden, eta Zumaia kostaldekoan zegoen. Zarautzek zeukan ardura. Gu hasi ginenean, bi zumaiar txirrindulari zebiltzan han. Guk hartu genuen Zarautzen lekukoa, eta Oriotik Azkoitira hartu genuen, kostaren izenean alebinetan eta infantiletan ibiltzeko”. Garai hartan, dozena bat txirrindulari zeuden Zumaian: “Batzuk onak ziren, Jose Ignazio Otaño eta Jesus Mari Osa, esaterako, inor ez bazen ere heldu afizionatuetara. Lasterketak irabazi zituzten, selekzioarekin joaten ziren Espainiako txapelketetara...”.

Gerora, eremua txikitu egin zitzaiera kontatu du Gomezek: “Zestoak eta guk osatzen genuen”. Pentsatzekoa da txi-

Alberto VICENTE

Zumaiako Txirrindulari Elkarteko presidentea

“Entrenatzeko lekua falta zaigu”

Urte eta erdi dabil buru lanak egiten, baina ia bizitza osoa darama herriko taldean. Gauza politak egiten ari direlakoan da, eta daukatenari eustea du helburu.

Zein da Txirrindulari Elkartearen oraingo egoera kirol arloan?

Hogeita bederatzi haur dauzkagu hiru mailatan banatuta, alebinetan, infantiletan eta kadeteetan.

Zein dituzue helburuak?

Hiru maila horietan txirrindulariak izateaz gain, jubeniletan ere gustatuko litzaiguke taldea edukitzea. Jarraitu nahi dugu lanean daukagun taldeei eusten, eta laugarren hori ere atera nahi dugu.

Lan zaila al da taldeei eustea?

Bai. Urtero saiatzten gara jende berria erakartzen, hamar-hamabost txirrindulari berri izatea urtean-urtean ona da. Maila bakoitzean bi urtez aritzen dira, eta ikusirik jubenilak genituenan zer gertatzen zen, kome-ni da haurrak erakartzea. Jubeniletan ibiltzeko bi urteak betetzen zituztenean, utzi egiten zuten txirrindularitza normalean. Edo txirrindulari onak baziren, alde egiten zuten.

Zer egiten duzue haurrak txirrindularitzan hasteko?



ZUMAIKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

Eskola mailan Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza daukagu, eskola kirolaren arloan, eta bi hilabeteko ikastaro modukoa ematen da.

Herriko haurren artean nolako estimazioa dauka txirrindularitza?

Herririk izateko, ondo gaude Gipuzkoa mailan. Baina arazoa da oso ezaugarri bereziak dituela gure kirolak: errepidean ibili behar da, esaterako. Eta gurasoei ez zaie asko gustatzen, beldurra ematen die. Gurasoa zalea bada, errazago etortzen zaizkigu haurrak, baina ez badira, beldurra ematen die, errespetua.

Hortaz, zuen taldeko kide gehienak bertan daude gurasoak txirrindularitza zaleak direlako?

Bai, erdia pasa bai. Besteen kasuan, probatzeko azaltzen dira.

Errepedeak ematen duen beldurraz gain, kirol garesti samarra izatea ere kontra al duzue?

▶ ETORKIZUNA

Gazteekin lan handiari ari dira egiten Zumaiaiko Txirrindulari Elkarteak. Argazkian, kadete mailako txirrindulariak, martxoaren 26an Zumaian jokaturako lasterketaren hasieran.



◀ HASIERATIK

Balentin Agirrek eta Juanito Gomezek deneratik egin dute txirrindularitzaren alde elkarteak daramatzaten 25 urte hauetan.



ARNATZ RUBIO APREA



ZUMAIKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

ERREPORTAJEA

Bizikletak ez dira merkeak, baina klubak uzten die bizikleta alebini eta infantilei; guri Federazioak ematen dizkigu bizikleta horiek. Hamabost-hogei bat bizikleta dauzkagu uzteko. Lehen lau urteetan ez daukate erosi beharrik. Gero, jarraitzea erabakitzen badute, gustatzen zaielako, nork berea erosi behar du.

Zer falta da herrian txirrindularitza gehiago indartzeko?

Entrenatzeko lekua esango nuke. Zarautzen, adibidez, pista antzeko bat daukate, peralte pixka batekin, eta bertan ibiltzen dira. Ez daukate errepidera atera beharrik. Guk, aldiz, lekuak bilatzen ibili behar dugu, industrialdeak eta halakoak. Eta horietan ere ez gara erosi ibiltzen.

Txirrindularitzaren modalitate guztiak lantzen al dituzue?

Ez, errepideko lasterketan eta pistakoetan ibiltzen gara. Aukera daukagu zirklo krosean ibiltzeko ere, baina aurrean, behintzat, ez da inor animatu.

Lehenengo aldean ez al dituzue lasterketa gehiago antolatzen herrian?

Urte batzuetan bakarria izaten zen, jubenilena. Duela lau bat urte edo, kadeteena ere egiten hasi ginen. Gero, afizionatuen lasterketa dago. Federazioak eskaini egin zigun antolatzeko, eta azken urteetan hori ere egiten dugu. Arrakasta dauka, esprintean bukatzen delako edo. Orain, hiru lasterketa horiek antolatzen ditugu, eta hortik aparte, Beduako industrialdean, haurrentzakoak egiten ditugu.

Lasterketa asko dira, eta jende ugari beharko duzue lanerako. Nahikoa laguntza badaukazue?

Beno, moldatzen gara. Jose Atxega arduratzen da hogei bat lagun

aurkitzeaz, eta beste herri batzuetan izaten dituzten arazoak ikusita, gu gustura gaude jendearekin. Beldurra izaten dugu ez garen osatuko, pertsona asko behar direlako, baina orain artean, behintzat, moldatzen gara. Gero, asteburuetan lasterketetara joateko ere nahikoa lagun biltzen gara.

Etorkizunera begira, zer asmo dituzue?

Gauza handirik egiteko intentziorik ez daukagu. Daukagunari eustea asko da guretzat, bai lehiaketetan, bai lasterketak antolatzen ere. Esaten diet zuzendaritzako kideei nahi duguna antolatuko dugula, zerbait polita egin nahi badugu egingo dugula. Lehiari dagokionez, gustatuko litzaguke lehengoa ez gertatzea: txirrindularien katea ez etetea. Bestela, hasieratik hasi behar da, eta zaila da. Orain, azkeneko lau urteetan, esaterako, ez daukagu jubenilik, bere garaian hasi zirenek utzi egin zutelako, beste norabait joan zirelako, edo ez zelako inor hasi haurretan.

Hori horrela izanik, afizionatuen taldea osatzea utopia baino zerbait gehiago al da?

Ez da gure asmoa afizionatuetako taldea ateratzea, oso zaila delako. Nahiago dugu haurrekin lanean jarraitu, eskola mailan.

“Herri txikia izateko, ondo gaude Gipuzkoako mailan”

API
Ibaitzain
 inmobiliaria

Ricardo Azkue
 API 399


Txomin Agirre 4, behea
 tel. 943 862 651
 faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

Idoia
 Moda dena
 Androginitan espezializatuta

Julio Beobide, 2 behea Tel. 943 86 03 01
 idoia@maia@gmail.com

Shinza
 Zumaia



ilarzi

Alai auzategia, 2
 Tel. 943 24 50 20



IRIONDO JATETXEA

Txikiardi auzoa
 Tel. 943861390
 675715017



Gure espezialitatea:
 arrainak eta baragia parrillan

IRUITZ

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 860 760



ITSASKI SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotatuak...

Itzurun Zuhazbidea, 2 behea
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI ZUMAI

943 862 083



JUARISTI
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
 Eguneko menua
 Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

KABI Patxia Etxezarotz 15
 943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
 Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320



kalari

Upela plaza, 8
 tel. 943 862 517



Kresala
 Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869



kuttun
 lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



Larraitz ile-apaindegi
 leion emakumezkoentzat

Basadi auzategia 5 behea
 Zumaia
 tel.: 943 14 30 41



malaun



rrindulari kopurua ere neurri berean murriztu-ko zitzaiera. Ustea berretsi du Agirrek: “Kosta egin zitzaigun txirrindulariak erakartzea”. Eta horrek beste arazo bat sorrarazi zien: “Ez bagenituen alebinak eta jubenilak, gero ez genuen jubenilik izango”. Eta halaxe gertatu zitzaizen noizbait, duela hamabost bat urte. Gomezek hartu du gai malkartsuaren ardura: “Alebinak eta infantilak ibiltzen dira baldin eta pertsona bat beraiekin badabil. Eta zaila da pertsona hori aurkitzea, gaur egun zailago, errepidean ibiltzeak beldurra ematen du eta. Horretan egin genuen huts. Une batean, falta izan zen pertsona hori, alebinetan eta infantiletan lan egiteko. Gu kadeteekin eta jubenilein ibiltzen ginelako”. Erreleboa luzatu du, eta aho bizarrik gabe hasi da mingaina astintzen, beren jardunaren kontra: “Gure akatsa izan da gure ordezkokoak ez aurkitzea. Gurekin ibilitako txirrindulariak utzi eta etxera joaten ziren. Gero bueltatu dira batzuk, semeak hasi direnean”.



Hiru txirrindulari profesioletara

Kontaezinak dira Gomezek, Agirrek eta beste hainbatek egin dituzten kilometroak hara eta hona. Ezin dira zenbatu sartu dituzten orduak. Beren patrikatik dirua jarri izan dutela ere kontatu dute. Beste garai batzuk zirela esanez azaltzen dute eginiko lan eskergaren balioa. Makina bat txirrindulari zuzendu izan dituzte. Haietako hiru igaro ziren profesioletara. Agirrek eman ditu izenak: “Iban Iriondo, Gaxento Oñaederra eta Aitor Osa”. Onenen arterako jauzia eman zutenean, “sekulako poza eman” ziela gaineratu dio Gomezek.

Hainbeste gazteren ardura izan, horrenbeste txirrindulari entrenatu, baina hiru profesional izatea ez dela gutxi esan du Gomezek: “Zaila zen. Gipuzkoan, garai hartan, 200 jubenil zeuden, eta horietatik bizpahiru ateratzen ziren. Talde profesional gutxiago zegoen, afizionatuak ere gutxi; Gurelesa eta Orbea dauzkat gogoan”.

Iriondo, Oñaederra eta Osa onak izan zirela agerikoa da. Baina profesional izatera heldu ez ziren beste batzuk ere on askoak zirela diote biek, baita hobeak ere. Gomezek buruari eragin behar izan dio entrenatu zituenen arteko izen bat botatzeko: “Jon Garmendia zen onena niretzat. Afizionatuetan ibili zen, eta ondo, gainera. Gorlako Igoera eta Valentziaga Memoriala irabazi zituen, baina ez zen gora igo. Ez dakit zergatia”. Beren txirrindularien balioa emaitzetan neurtu du Agirrek: “Emaitza onenak Iriondok izan zituen.

“Taldea izan da elkartearen oinarria. Denek denetik egiten dute”



ZUMAIAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

▲ AURREKARIAK

Zumaiako Txirrindulari Elkartearen sortu aurretik Pulporen eta Zumaiako Herri Batzokiaren izenean lehiatzen ziren txirrindulariak.

Jubenilak arte sekulako emaitzak lortu zituen”. Beste izen batzuk gehitu ditu: “Joxe Mari Iribar, Jesus Mari Osa eta Ander Odriozola”.

Iribar tarteko zela, erdi ezkutuko kontu bat atera dute. Gomez hasi da: “Iribar oso esprinter ona zen. Taldean iristen bazen, irabazi egiten zuen, baina aldapatxoa nahikoa zuen atzean gelditzeko”. Agirrek bukatu du taldekideak hasitako lana: “Afizionatuetako lasterketa bakarra antolatu genuen orduan herrian, eta Iribarrek irabazteko prestatu genuen zirkuitua. Azkeneko kilometroak Iraetatik barrena ziren, eta han atzean gelditu zen. Taldekide batek lagundu zion pelotoian sartzen, eta irabazi egin zuen”.

Afizionatuen lasterketaren bat antolatu zutela azaldu dute pasadizo horrekin, baina Zumaian ez da inoiz egon talderik maila horretan. Gomez hasi da arrazoi bila: “Dirua behar zen, beste egituraketa bat: zuzendariak, esaterako. Aste barruan izaten dira lasterketak, eta ea nor joaten den. Gogoia bai, baina ezin”.

27. orrialdean jarraitzen du.

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278

Maluta
Jatetxea • taberna



oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

Maxi
solarium

ileapaindegia
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea



Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

METRO
taberna



ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

✓ Eguneko menua.
✓ Asteburuetan txotx,
sagardotegiko giroan.



Muniosoro, 54
OIKIA
tel.: 943147891

muniosoro
Taberna - Jatexea

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK



Etengabeko garabi zerbitzua

636 887 812 (Zumaiá)
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaiá
Tel.: 943 861 363
zumaiá@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutzilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

OSKARBI
KIROLAK



Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA



OSTOLAZA ZUMAIÁ, S.L.

Joxe Mari Korta Industriegunea, A1 - 4, pat. 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibitokia, 1
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

Ander ODRIOZOLA Txirrindulari ohia Zaletasuna **handitu** zidaten

Alebinetan hasi eta jubenetako adina amaitu arte ibili nintzen Zumaiaiko Txirrindulari Elkartearen. Bederatzi urte izan ziren denera, eta oroitzapen onak dauzkat. Azken batean, txirrindularitzako zaletasuna handitzen lagundu zidan, eta ikasi dudana ere bertan ikasi dut. Orain, zuzendari laguntzailea naiz Bidelan taldean, eta erabiltzen ditut ikasitakoak. Balentin Agirre, Juanito Gomez eta Patxi Ortiz izan nituen irakasle. Bizitza zer den erakutsi zidaten, ikasketak ez zirela utzi behar eta halakoak. Elkarterik ez balitz egon, ez dut uste txirrindularia izango nintzenik. Umetan, han ibiltzen nintzen kalean gora eta behera nire bizikletarekin, eta Jua-

nitok ikusten ninduen. “Lasterketetan parte hartu nahi dut”, esaten nion, eta hark ezetz, “txikia zara oraindik”. Azkenean, utzi zidan eta hasi nintzen, gurasoek lagunduta. Zaletasuna neure kasa sortu zitzaidan. Herriko maillotarekin garaipen estimatuena Anoetan lortu nuen, jubenetan, Ekaitz Eizagirre taldekidea eta biok eskutik helduta iritsi ginen. Pena daukat herrian irabazi ez izana... bigarren eta hirugarren egin bai, baina aurrena behin ere ez. Oso ondo pasatzen genuen. Juanitorekin lasterketa batzuetara ziztu bizian joaten ginen autoan, norbait berandu iritsi zelako; txoferra zen, eta barre asko egiten genuen.



ZUMAIAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA



Iban IRIONDO Txirrindulari ohia **Lagunartea** eman zidan Elkarteak

Jubenetako adina bukatu arteko maila guztietan ibili nintzen Zumaiaiko Txirrindulari Elkartearen, alebinetan hasi eta gero. Txirrindularitzan egin ditudan urte onenak haiek izan ziren. Jubenetan oso talde ona izan genuen bi urteetan, eta konfiantza handia genuenez, beti ibiltzen ginen erasoan. Emaizak ere onak izan ziren, batek ez bazen besteak irabazten zuen. Talde hartan ginen Odriozola, Gabarain.... Lagunartea eman zidan Elkartearen ibiltzeak. Eskertu nahi diet gugatik hainbesteko sakrifizioa egin zuten

guztiei, asteburuero gurekin ibiltzea handia da, gero. Zikloturistei jarraitzen sortu zitzaidan zaletasuna. Herriko maillotarekin lortu nuen garaipen handiena jubulen mailako Gipuzkoako Itzulia izan zen. Herrian irabazitako bi lasterketak ere gogoan dauzkat; haiek ere jubenetan izan ziren. Bitxikerien artean, ez daukat ahazteko Juanito Gomezen esaldi mitikoa: “¡A casa en bici, a casa en bici!”. Niri ez zitzaidan inoiz parean tokatu, baina ezaguna zen denentzat Juanitoren jardun hori.

Igor BERISTAIN Txirrindulari ohia Elkarterik gabe, **nekez** txirrindulari

Zortzi urtez egon nintzen Zumaiaiko Txirrindulari Elkartearen, bederatzi neuzkanetik hamazazpi bete arte. Gero, beste pare bat urte ere egin nituen, ziklo krosetan ibili nintzenean. Oroitzapen ugari dauzkat garai hartakoak: zenbat jende ibili zen gure atzetik! Denak dauzkat gogoan: Balentin Agirre, Juanito Gomez, Sebastian Vicente, Jesus Mari Osa eta Agustin Leonet. Larunbatetan lasterketak izaten genituen, eta igandero entrenamendua egiten genuen; eta, norbaiten urtebetetzea bazen, pastelak eraman behar izaten ziren, eta eraman ezean, pastel bila bidaltzen gintuzten. Egundoko ilusioa eman zidan Elkarteak, bizikletan ibiltzeko eta pro-

fesionaletarako jauzia emateko aukera hor zegoela ikusteko bizipoza. Oso gustura ibili nintzen, eta asko lagundu zidaten. Denboraldi bukaerako afaria ere polita izaten zen. Zumaian ez balitz talderik egon, zaila izango zen ni txirrindularia izatea. Zumaiaiko maillotarekin irabazi nuen lehen lasterketa Astigarrakoa izan zen, kadeteetan. Beste karrera batzuetan, bigarren postuan eta askotan izan nintzen. Herrian ez nuen lortu irabazterik; hirugarren izan nintzen, baina aurrena inoiz ez. Ziklo krosetan ibili nintzenean ere asko lagundu zidan Elkarteak; batez ere Juanitok eta Balentinek. Eta ezin aita ahaztu! Lasterketa guztietara joaten zen nirekin.



OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

La
Prima Vera
pizzeria



Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

RUBIO
Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERA,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

Talajaia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

TALAI-PE
jateketa-erretoria



Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAILA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondok (hodilloa)
Saltxitzak, oilaskok...
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

Txingurri
Loradenda



Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

*Eraikitzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketak
*Alo, zokalo, tarima eta pertsiarik
*Armarri enpokatuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323

UZKUDUN
taberna • jatetxea



Gosariak-Pintxoak-Kaxuelitak-Eguneko menua-Asteburuko menua-Merendak-Plater konbinatuak-Errazoiak-Afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349

Xanti

Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amalako plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urtz Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAILA

zapateixa
Konponketak

Maitasun Ukanaga

Oinetako eta erropa konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumaila • 943 861 252 • 652 727 740

Zumaila Hotela
Jatetxea
Kafetegia



Alai suztegia, 20750 Zumaila tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

Zerbitzu Ofiziala

ZUMAILA MOTOR

Santiago auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ZUMAILA
AUTO-ESKOLA



• Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
• Praktika eta azterketak Azpeltian
• GURE HELBURUA:
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAILA

Zumaila optika



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

Ibizara, lau urtez segidan

Afizionatuen taldea sortzeko baliabiderik ez zeukaten, eta Ibizara lehiatzera joateko ere ez. Baina han ibili ziren lau urtez segidan. “Paroleko zaindaria izan zen Fernandezzen semea Ibizan bizida, eta Zumaiarekin lotura zeukan, eta zerbait egin nahi zuen. Bera zen jubenil mailako Ibizako Itzuliaren antolatzailea, eta horrela deitu ziguten. Federazioaren bitartez egin zuen kontaktua, eta han joan ginen”. Gomez ere ez dago bidaia haiek ahazteko: “Ekainean izaten zen, eta lau egunez han ibiltzen ginen. Igor Beristain joan zen azkena, 17 urterekin edo. Hortaz, duela 20 bat urte izango zen. Deniara gure kontura joaten ginen, eta itsasontzia nahiz hotelak haien kontu izaten ziren. Deniarako bidea, berriaz, gure kontura”. Agirrek zuzendu egin nahi izan dio: “Dirua ematen ziguten, eta dena kubritzen genuen”.

Ibizakoaz gain, beste bidaia batzuk ere egin dituztela esan dute: “Espainiako txapelketetara joaten ginen, ziklo krosean Galiziara, Valentziara eta Kantabriara. Pistan Avilara ere bai”. Ibili eta ibili, han eta hemen, garaipen dezente pilatutakoak dira biak gazteen arduradun lanetan: “Nireztat onena Ibanen Espainiako Txapelketa izan zen, kadeteetan. Gero, ziklo krosean ere Igorrek sekulako maila eman zuen”. Agirrek ere Iriondoren garaipenetako bat ekarri du gogora, baina beste bat: “Zaila da baloratzen garaipen onena, baina Ibanek Gipuzkoako Itzulia irabazi zuen jubeniletan, eta handia izan zen hura”.

Garaipenak ugari, eta baita bitxikeriak ere. Agirrek oso gogoan du hau: “Galizian izan zen, Espainiako Txapelketan. Kadetea zen orduan Otaño, eta harako aukeratu zuen Jose Luis Arrietak, selekzioako entrenatzaileak. Baina erlakaiztena atera zitzaion Otañori ipurdi aldean, eta minez zen. Arrietak haragi xerra erosi zion, kulotearen azpian jartzeko, haragiaren gainean. Horrela egin zuen lasterketa, eta ez zuen min handirik izango, txukun ibili zen eta”.

“Bizikletan etxera”

Baina lasterketa guztietan ez omen ziren txukun ibiltzen herriko taldeko txirrindulariak. Halakoetan, entrenatu eta gero, lasterketan kale. Hori ez zitzaion gustatzen Gomezzi, eta hauxe agintzen zien “lasterketa txarra” egin zuteni: “Bizikletan etxera buelta”. Lasterketa txarra erretiratzea zela azaldu eta gero, kontu horrekin segitu du: “Esan izan didate oso zorrotza nintzela. Behin baino gehiagotan behartu nituen etxera bizikletan etortzera. Baina ez nituen oso urrutitik bidaltzen... urrutiena Donostiako Egia auzotik izango zen. Hasieran haserretu egiten ziren, baina gero ez”.

Beharko haserrea pasatu, orain ere orduko harremanari eutsi ahal izateko. Gustura azaldu dute hala dela: “Harremanari eusten diogu orduko txirrindulariekin, eta ona da, gainera, erlazioa”. Ez da katea hautsi. Ez dute puskatu. Eta lanean segitzen dute, nahiz eta lasterketetara joateari utzi, “duela hiru bat urtetik edo, omenaldia egin zigutenetik”. Baina ezustean, Agirrek sekulako abiadura hartu eta hau esan du: “Ni itzuliko naiz. Datorren denboraldian jubenilen taldea egongo da, eta kadetei laguntzera edo azaldu beharko da”.

Horrelako jendarekin ezin liteke amaitu duela urte asko hasi zen lasterketa hura. Halakoekin segituko du izaten Zumaiako Txirrindulari Elkarteak zulaturik gabeko gorpila. ■



ZUMAIAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

▲ BELAUNALDIAK

25 urte hauetan zumaiar askok jantzi dute elkarteko elastikoa.

25. urteurreneko ospakizunak

Apirilak 13

MAHAI-INGURUA: Prestakuntza. Iñaki Arratibel kirol medikua; Xabier Muriel prestatzailea; Bixente Iza txirrindulari ohia eta masajista.

Non: Torreberri, 19:30ean.

Apirilak 15

MAHAI-INGURUA: Txirrindulari izan nahi dut, baina zer espezialitatean? Abraham Olano txirrindulari ohia; Markel Irizar txirrindularia; Unai Iparragirre pistako txirrindularia; Egoitz Murgoitio ziklo-kross txirrindularia; Iñaki Lejarreta mendiko bizikletako txirrindularia; Mireia Epelde txirrindularia; eta Iban Iriondo txirrindulari ohia.

Non: Torreberri, 19:30ean.

Apirilak 16

15:00etan hasitan, **GIPUZKOAKO KLASIKA**, junior mailako lasterketa.apirilaren 16an.

ERAKUSKETA bat ere ari dira antolatzen, baina aurrerago izango da.

ondo pasatu
SAN TELMOAK



Zumalako Udala



BATU GAITEZEN
ZUMAIK AURRERA EGITEKO



www.gipuzko.com

Montse Arana
Zumaiako Alkategaia

APIRILA

DEIALDIAK

ZUMAIAKO ARGAZKI LEHIAKETA.

Zuri-beltzean. Gaia: GARRAIO BIDEAK. Lanak aurkezteko epea, ekainaren 23a. Informazioa kultur etxean (943861056 / foronda@zumaia.net)

UDALEKU MUSIKALAK: Uztailaren 18tik 29era. Informazio orriak kultur etxean apirilaren 26tik aurrera.

TURISMO IRTEERAK:

informazioa 943143396.

ASTE BERDEKO ARGAZKI

RALLYA: maiatzaren 28an, 08:00etatik 15:00etara.

KORRIKA

Apirilaren 8an, 19:30ean, Torreberrin, bertso emanaldia, Xabier Amuriza eta Anjel Mari Peñagarikanorekin: Otaño, atzerriko oroi-mina.

Apirilaren 14an, 21:45ean, Aita Marin, Apaizac obeto dokumentala, Jon Maiak aurkeztuta.

Apirilaren 15ean Korrika Txikia 10:30etik 11:30era, amaiera Kantauri plazan; ondoren, flash-moba.

Apirilaren 16an Korrika Eguna. 18:00etan Potxin eta Patxin pailazoak, Kantauri plazan Gero, Zumaiaiko kantuzaleak Erribera kalean. Poteoa tabernetan. Gauetan luntxa eta kontzertuak Gaztetxean.

APIRILA

Larunbata, 9

19:00etan Bandaren kontzertua, "Emakume Konpositoreak".

Asteazkena, 13

19:30ean Torreberrin, hitzaldia Txirrindulari Elkarteak antolatuta.

Ostirala, 15

19:30ean Torreberrin, hitzaldia Txirrindulari Elkarteak antolatuta.

Igandea, 17

09:00etan Mendi buelta, ZUMAIARI BIRA.

Astearte, 26

Ludotekatik IGELDORA IRTEERA (Informazioa: 943143264).

Osteguna, 28

21:45ean Aita Marin, zine forum LA LLAVE DE SARAH.

SANTELMOAK

Ostirala 29

22:30ean Aita Mari aretoan, Santelmotako bertso jaialdia. Bertsolariak: Sustrai Colina, Igor Elortza, Arkaitz Estiballes, Xebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Iker Zubeldia. Gai-jartzaile: Jon Maia.

23:00etan Txosna eremuan HIPHOP emanaldia: GOIENETXE ANAIK

Larunbata 30

9:00etan Itzurun hondartzan

Plaiero Txapelketaren barne:

Kopa eta Ligako Finalak

10:00etatik 13:00etara Herri mailako Arrantza Lehiaketa, Talaipekik Parolmuturrera bitartean. (Heriotzarik gabeko proba)

10:30ean Getariako

pelotalekuan, Xixerazko

Eskola Arteko txapelketa.

11:00etan Udal Txistulari

Bandaren kalejira

12:00etan San Telmo ermita bertan,

Txupinazoa jaiei hasiera emateko.

Jarraian Musika Eskolako

Trikitilariek lagunduta, Jaitsiera.

Ondoren Itxas Gain elkarteak

antolatuta, Hamaiketakoak.

Tartea alaitzeko, Bertso Eskolako

ikasleen eta Trikitilarien saioak.

12:30ean kalejira herrian

zehar IRAUNKORRAK

txaranga lagunduta.

13:00etan Ondartxo plazan, Musika

Eskolako dantzako haurren

eskutik, Euskal Dantza ikuskizuna.

14:30ean Txosna eremuan, Herri

Bazkaria. Ondoren jolasak.

17:30ean Haurren Danborrada

18:30ean Beheko plazan hasita

IRAUNKORRAK txarangaren saioa

22:00etan Txosna eremuan,

Kontzertua: Itziarren Semeak

eta Egurra ta kitto; Erromeria

luzargi taldearekin.

22:30ean Kofradian dantzaldia

DRINDOTS taldearekin.

Igandea 1

11:00etan Arbustain Motorzale

elkaratek antolatuta. Udalak eta

Kutxak babestuta, Hamaiketakoak

herriko itsasgizon zaharrentzat.

11:00etatik 14:00etara Gaztetxolako

lokaletan, Santelmotako XIII.

Scalextric txapelketa

11:30ean TRIKITXAS bikotearen

doinuak kaleetan zehar:

12:30ean Eusebio Gurrutxaga Plazan,

URREZKO AIZKOLARIEN 2011.

EUSKO LABEL TXAPELKETA

17:00etan Buruhandi eta Erraldoien

kalejira- Irteera: Udaletxean.

17:00etatik 19:00etara

Scalextric saio gehiago.

18:00etan Haurrentzat, Kofradian,

Magia Ikuskizuna SUN MAGOA

18:30ean TRIKITXAS bikotearen

doinuak kaleetan zehar:

19:30ean kofradian EGAN taldearen

saioa GAZTETXOENENTZAT

22:30ean Danborrada Berezia

Gauerdian Kofradian Bandera

Igotzea JOSU IRIGOIEN ETXABE

arrantzale ohiaren eskutik. Bertan

Arbustain Motor elkarteak bere

txapel oroigarria oparitutako dio.

Ordu berean Txosna eremuan,

kontzertua: Izu nauk eta Rapa Nui.

Tanborradaren jarraian berbena

EGAN taldearekin

Astelehena 2,

San Telmo eguna

10:15ean Ohiturazko Prozesioa

San Telmo ermitara

10:30ean Meza Nagusia,

itsasoaren aurrean otoitza

eta Parrokiara itzulera. San

Telmoren erlikia gurtzea.

Ondoren, agintari eta

gonbidatuei hamaiketako bat

eskainiko zaie Kofradian

12:00etan INCANSABLES

txarangaren kalejirak.

17:00etan Haur festa

Eusebio Gurrutxaga plazan

GORRITIREN saioa.

18:00etan INCANSABLES

txarangaren ekitaldia plazan, eta

jarraian herriko kaleetan zehar:

18:30ean Kofradian, SARDINAJANA

19:00etan Kofradiako plazatxoan,

LOTXO erromeria taldearekin.

22:30etan LOTXO

taldearekin erromeria.

Ostirala 6

20:00etan Torreberrin, "Bertso Jai"

herriko bertsolariarentzat saioa.

22:30ean txosna eremuan, Doubling

boys, CC627 eta Estricalla

Larunbata 7

11:00etatik - 17:00etara Zumaiaiko

bela estropadak. Gipuzkoako

txapelketa: Gurutze-Ontzi

maila eta maila Irekia

11:30ean Haur Jolasak Ondartxo

plazan Itxas Gain elkartearen esku.

11:30ean Eusebio Gurrutxaga

plazan, X. Olarro-zopa Lehiaketa

eta Rana eta Poto Txapelketak

Ekitaldia alaitzeko ELUSTONDO

ANAI-ARREBAK trikitilarien saioa.

12:00etan herriko kaleetan

BEHEKO PLAZA eta

ABESBATZA taldeen saioa.

14:30ean Txosna eremuan,

Bazkaria eta kantu saioa.

18:30ean hhhhSUGARRI

txarangaren ZONBIN BLAI

ikuskizuna kaleetan zehar.

22:00etan txosna eremuan,

Kontzertua : Banda Batxoki,

Surfin kaos eta Bilbomatiks

22:00etatik 01:00etara Kofradian,

XAIBOR Djarekin, disko jaia

Igandea 8

11:00etatik - 15:00etara. Zumaiaiko

bela estropadak. Gipuzkoako

txapelketa: Gurutze-Ontzi

maila eta maila Irekia

11:30ean trikitilarien saioa.

Eguerdian Eusebio Gurrutxaga

plazan, ERKIBE kultur elkartearen

esku, OLARRO ZOPA.

12:30ean Itzurun hondartzan,

ZALDI LASTERKETA

18:00etan Aita Mari aretoan,

Haurrentzat antzerkia "HIPO

ETA MAX: Beldurraren etxea"

18:30ean Traineren estropada,

XXVIII. San Telmo Saria.

Ordu berean TALO-JANA,

Txinparta elkartearen eskutik

19:00etan Kofradian, erromeria

BASAJAUN taldearekin.

19:30ean kaleetan zehar PIXIE@

DIXIE dixiland taldearen saioa

22:30ean BASAJAUN

taldearen bigarren saioa.

Gauerdian Bandera jaistea

eta Santelmoei agurra.



Izaskun
arropa-benda

Eribera kalea, 3 Tel. eta faxa: 943860098



PAPER diseinu grafikoa

Roberto Gutierrez

696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

Egin zaitez
BALEIKEko
bazkide





PIRATA

Egurrezko hankarik gabeko pirata zen.

Ordenagailua zen bere pirata-ontzia, eta honen agintetik, Interneten harrapa zitzakeen altxor guztien bila aritzen zen: pelikula, telesail, liburu edo musika, berdin zitzaion. Guztiak balio zion.

Megak eta megak zituen eguneroko harrapakin, saguaren kolpez hondoratu eta behera jaisten zituenak, bere ordenagailuko ziberaltxorra handitzen zutenak. Pasahitz eta kode kriptografikoz babestuta zeukan altxorren mapa, disko-gogorreko sektore ezkuturako bidea tranpaz betea.

Mende berriko pirata zen, gupidarik gabekoa, kontzientziarik gabekoa.

Ezustean piztu zitzaion kontzientzia.

Harrapaketan zebilela “Euro bat, liburu bat” zioen iragarki batekin topo egitean gertatu zen. Trikimailu baten aurrean zegoela pentsatu arren, iragarkia klikatu eta solidaritate kanpaina batera iritsi zen: liburu digitalak libre jaitsi zitezkeen gune bat zen, baina euro bat ordainduz gero dirua hondamendi bateko kaltetuei bideratuko zitzaien.

Edukiak eskura izan arren, begiko partxea eta bandera-beltza alde batera utzita kreditu-txartela erabili zuen. Euro bat ordaintzea bidezkoa irudituz zitzaion, elkartasunaren aitzakian, eta birritan pentsatu gabe Paypal-en laguntzaz ordaindu zuen.

Ordainketa gauzatu orduko mugikorra joko hasi zitzaion.

—Bai? —galdetu zuen harrিতa piratak.

—Egun on —erantzun zion goxo emakume batek—. Bankutik deitzen dizut. Zure kontuan euro bateko mugimendua ikusi dugu eta segurtasun arrazoiengatik deitzen dizugu. Ziberpirata baten iruzurra izan ez dela bermatu nahi genuen.

—Lasai —erantzun zion berak asaldatuta—, nik egindako ordainketa izan da.

Telefonia eseki eta azkar zabaldu zuen berriz bandera-beltza.

Ez zegoen zalantzarik: pirata bezala lasaiago bizi zen.



GORENAK

EUSKAL HERRIKO
SAGARDO GORENAK
SIBRAS SULTZAS
DEL PAIS VASCO

EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK

SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA



WWW.SAGARDOGORENAK.COM

HAUJEK IZAN DIRA AUKERATUAK.
PROBARIK GOGORRENAK GAINDITU DITUZTELAKO.
KALITATE ETA PROFESIONALTASUNEAN NAGUSI DIRELAKO.
HORREGATIK DARAMATE SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.

Zumaiaiko 14 merkatarik kalitate ziurtagiria lortu dute:

- ✓ A3
- ✓ ALGORRI
- ✓ ANA ETXEKO ZAPIAK
- ✓ EKIN ELEKTRIZITATEA
- ✓ FLYSCH
- ✓ KULUNK
- ✓ KUTTUN
- ✓ MARISA OINETAKOAK
- ✓ OPTIKA ZUMAIA
- ✓ OTAÑO LIBURUDENDA
- ✓ PIRATETXEA
- ✓ TXALAPARTA OPARIAK
- ✓ UKENDU
- ✓ XANTI ALTZARIAK



Apirila Maiatza

Udaberria Zumaian

%05

eko
deskontua
ezustean

- Deskontua astean behin ezarriko da aleatorioki.
- Deskontua erosketan guztietan aplikatuko da zordundutako eta atzeratutako ordainketetan izan ezik.
- Egindako erosketan/Kontsumizioan aplikatuko da deskontua.



Zumaia Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, ENERGIJA, LANITZA
WWW.KOMERZIOA.EA.TURISMOA.EA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
ENERGIA, TURISMO Y COMERCIO



RURAL
KUTXA